

## A9

*Canción: Iragarri oi ez nagizun...*

A3, A5 eta A8 poemak ahapaldi-egitura berekoa da. Baina, poema honetan, maite-solasa da elementu garrantzitsua, neskaren eta “jentil onbrea”ren arteko elkarrizketa, hain zuzen, “*bildur nax*” / “[*ni bildurrago nax*” jokoan oinarrituta. Kasu honetan, elkarrizketan txertaturik dago errepika, beti gizonaren ahotsa. Neska da gizonarekin harremana izan nahi duena (tentuz hasi arren, nabarmen), baina gizonaren ustez andrazkoak ez dira aski zurrak eta, ondorioz, ez du ezer nahi neskarekin. Errepika solasaren barruan sartzen duten poemak ezagunak dira gaztelaniazko herri-oesian; Carlos Eustoliak aztertu ditu horietako batzuk, “El diálogo amoroso en la antigua lírica popular hispánica” artikuluan (Eustolia 2007).

&lt;1175r&gt;

*Canción*

—Iragarri<sup>1</sup> oi<sup>2</sup> ez nagizun,  
jentil onbrea, bildur nax.

—Neurk<sup>3</sup> ekusirik nola zarean,  
neskea, bildurrago nax.

—Nola andraen bildur zara, 5  
haek baga onik ez badozu?

—Haen obraen oita bildur nax;  
zure<sup>4</sup> bere bai, badagizu.

—Ez dot egingo gauza gaxtorik,  
oi ez dasazun<sup>5</sup> “bildur nax”. 10

—Neurk ekusirik nola zarean,  
neskea, bildurrago nax.

—Zerren<sup>6</sup> diozu sekretorik  
oi andraetan ez dala? 15

—Zerren kausea begiratzaka<sup>7</sup>  
ifinten dabe obratan.<sup>8</sup>

—Faltaduko jatzulako  
zenzuna<sup>9</sup> goganbehar nax.<sup>10</sup>

—Neurk ekusirik nola zarean,  
neskea, bildurrago nax. 20

—Andraetan diskreziorik  
ez dala uste al dozu?

—Bai, baia daben zenzutxo ori  
gaxki daroae giadu.<sup>11</sup>

<sup>1</sup> *Iragarri*: ‘salatu’ adiera bide du.

<sup>2</sup> *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>3</sup> *Neurk*: ‘neuk’.

<sup>4</sup> *zure*: ‘zure obren bildur’ alegia.

<sup>5</sup> *ez dasazun*: ‘esan ez dezazun’.

<sup>6</sup> *Zerren*: ‘zergatik’; galdetzailea da hemen.

<sup>7</sup> *begiratzaka*: ‘begiratzeko, begiratu gabe’.

<sup>8</sup> *ifinten dabe obratan*: ‘horreketan hasten dira’.

<sup>9</sup> *Faltaduko jatzulako / zenzuna*: ‘Zenzuna faltatuko jatzulako’.

<sup>10</sup> *goganbehar nax*: ‘beldur naiz, kezkatu nago’.

—Oita bildurrak ikara nabil,  
ez dakit neurau nor naxan.  
—Neurk ikusirik nola zarean,  
neskea, bildurrago nax.  
Fin

25

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A9 – *CanCIÓN: Iragarri oi ez nagizun...* (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

---

<sup>11</sup> *daroe giadu*: ‘daroe gidatu, gidatu ohi dute’.